

Ley Orgánica 2/1984, de 26 de marzo Reguladora del Derecho de Rectificación

BOE, nº 74, de 27 de marzo

Artículo 1

Toda persona natural o jurídica, tiene derecho a rectificar la información difundida, por cualquier medio de comunicación social, de hechos que le aludan, que considera inexactos y cuya divulgación pueda causarle perjuicio.

Podrán ejercitar el derecho de rectificación el perjudicado aludido o su representante y, si hubiese fallecido aquél, sus herederos o los representantes de éstos.

Artículo 2

El derecho se ejercitara mediante la remisión del escrito de rectificación al director del medio de comunicación dentro de los siete días naturales siguientes al de publicación o difusión de la información que se desea rectificar, de forma tal que permita tener constancias de su fecha y de su recepción.

La rectificación deberá limitarse a los hechos de la información que se desea rectificar.

Su extensión no excederá sustancialmente de la de ésta, salvo que sea absolutamente necesario.

Artículo 3

Siempre que el derecho se ejerza de conformidad con lo establecido en el artículo anterior, el director del medio de comunicación social deberá publicar o difundir íntegramente la rectificación, dentro de los tres días siguientes al de su recepción, con relevancia semejante a aquella en que se publicó o difundió la información que se rectifica, sin comentarios ni apostillas.

Si la información que se rectifica se difundió en publicación cuya periodicidad no permite la divulgación de la rectificación en el plazo expresado, se publicará ésta en el número siguiente.

Si la noticia o información que se rectifica se difundió en el espacio radiofónico o de televisión que no permite, por la reciprocidad de su emisión, divulgar la rectificación en el plazo de tres días, podrá exigir el rectificador que se difunda en espacio de audiencia y relevancia semejantes, dentro de dicho plazo.

La publicación o difusión de la rectificación será siempre gratuita.

Artículo 4

Si, en los plazos señalados en el artículo anterior, no se hubiera publicado o divulgado la rectificación o se

Martxoaren 26ko 2/1984 Lege Organikoa, Zuzenketa Eskubidea Arautzekoa

EAO, 74. zk., martxoaren 27koa

1. artikulua

Pertsona fisiko zein juridiko orok eskubidea du edozein gizarte-komunikabidek hedatutako informazioa zuzentzeko, baldin eta informazio horretara bildu badira pertsona horri buruzko egitateak, beraren ustez zuzenak ez direnak, eta, halakoak zabaltzeagatik, hari kalteak eragin diezazkioteketan.

Zuzenketa-eskubidea egikaritu ahal izango dute informazioan aipatutako kaledunak edo horren ordezkariek, eta, kaleduna hil bada, horren jaraunsleek edo horien ordezkariek.

2. artikulua

Eskubidea egikarituko da komunikabidearen zuzendariari zuzenketa-idazkia igorria. Idazki hori igorri beharko da zuzendu nahi den informazioa argitaratu edo hedatu eta egutegiko hurrengo zazpi egunetan. Halaber, egiatzatzeko modukoak izan beharko dira idazkiaren data eta idazki hori jaso izana.

Zuzenketa k ukituko ditu, bakarrik, kasuan-kasuan zuzendu nahi den informazioaren egitateak.

Zuzenketa hedadurak ez du gaindituko zuzendu nahi den informazioaren hedadura, salbu eta hori erabat beharrezko denean.

3. artikulua

Eskubidea aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz egikaritzenean, gizarte-komunikabidearen zuzendariak oso-osoan argitaratu edo hedatu beharko du zuzenketa, zuzenketa- idazkia jaso eta hurrengo hiru egunetan. Zuzenketa argitaratu edo hedatuko da zuzendu beharreko informazioa argitaratu edo hedatu zen garrantzi berberarekin, azalpenik eta oharrik gabe.

Zuzendu beharreko informazioa aldzkariren batean hedatu bazen, eta aldzkari horren aldzkakotasunak ez badu ahalbidetzen zuzenketa aipatu epean zabaltzea, zuzenketa argitaratuko da aldzkariaren hurrengo zenbakian.

Zuzendu beharreko albisteak edo informazioa irratieto telebista-saioren batean hedatu bazen, eta, emanaldiaren elkarrekikotasunarenengatik, irratieto telebista-saio horretan ezin bada zuzenketa zabaldu hiru eguneko epean, zuzenketa- eskatzaileak galdu ahal izango du hiru eguneko epe horretan zuzenketa hedatzea antzeko ikus-entzule kopurua eta garrantzia dituen saioan.

Zuzenketa argitaratzea edo hedatzea doakoa izango da beti.

4. artikulua

Aurreko artikuluko epeetan zuzenketa ez bada argitaratu edo hedatu, edo gizarte-komunikabidearen

hubiese notificado expresamente por el director o responsable del medio de comunicación social que aquella no será difundida, o se haya publicado o divulgado sin respetar lo dispuesto en el artículo anterior, podrá el perjudicado ejercitar la acción de rectificación dentro de los siete días hábiles siguientes ante el Juez de Primera Instancia de su domicilio o ante el del lugar donde radique la dirección del medio de comunicación.

Artículo 5

La acción se ejercitá mediante escrito, sin necesidad de Abogado ni Procurador, acompañando la rectificación y la justificación de que se remitió en el plazo señalado; se presentará igualmente la información rectificada si se difundió por escrito; y, en otro caso, reproducción o descripción de la misma tan fiel como sea posible.

El Juez, de oficio y sin audiencia del demandado, dictará auto no admitiendo a trámite la demanda si se considera incompetente o estima la rectificación manifiestamente improcedente.

En otro caso convocará al rectificante, al director del medio de comunicación o a sus representantes a juicio verbal, que se celebrará dentro de los siete días siguientes al de la petición.

La convocatoria se hará telegráficamente, sin perjuicio de la urgente remisión, por cualquier otro medio, de la copia de la demanda a la parte demandada.

Cuando el Juez de Primera Instancia hubiese declarado su incompetencia podrá el perjudicado acudir al órgano competente dentro de los siete días hábiles siguientes al de la fecha de notificación de la correspondiente resolución, en la cual se deberá expresar el órgano al que corresponda el conocimiento del asunto.

Artículo 6

El juicio se tramitará conforme a lo establecido en la Ley de Enjuiciamiento Civil para los juicios verbales, con las siguientes modificaciones:

a) El Juez podrá reclamar de oficio que el demandado remita o presente la información enjuiciada, su grabación o reproducción escrita.

b) Solo se admitirán las pruebas que, siendo pertinentes, puedan practicarse en el acto.

c) La sentencia se dictará en el mismo o al siguiente día del juicio.

El fallo se limitará a denegar la rectificación o a ordenar su publicación o difusión en la forma y plazos previstos en el artículo 3 de esta Ley, contados desde la notificación de la sentencia que impondrá el pago de las costas a la parte cuyos

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honestako aurkibide analitikoa:

F. Javier Arrieta Idiakoz, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

zuzendariak nahiz arduradunak esanbidez jakinarazi badu zuzenketa ez dela hedatuko, edo zuzenketa argitaratu edo hedatu bada aurreko artikulan xedatutakoa errespetatu gabe, kaltetunak zuzenketa- akzioa egikaritu ahal izango du, egutegiko hurrengo zazpi egunetan, bere egoitzari dagokion lehen auzaldiko epailearen aurrean edo komunikabidearen zuzendaritza zein tokitan izan eta toki horretako lehen auzaldiko epailearen aurrean.

5. artikula

Akzioa idazki bidez egikarituko da, eta ez da behar izango abokaturik, ezta prokuradorerik ere. Idazki horrekin batera aurkeztu beharko dira zuzenketa bera eta zuzenketa-eskaria aipatu epeanigorri izanaren justifikazioa; orobat, zuzendu beharreko informazioa aurkeztuko da, informazio hori idatziz hedatu bazen; eta, osterantzeko kasuetan, aurkeztuko da informazio horren erreprrodukzio edo deskripzioa, ahalik zehatzena.

Epaileak, ofizioz eta demandatuak esan beharreko entzun gabe, autoa emango du demandaren izapidezta ez onartzeko, baldin eta uste badu ez duela eskumenik, edo zuzenketa bidegabekoa dela ageri-agerian.

Osterantzean, epaileak hitzezko epaiketara deituko die zuzenketa-eskatzaleari, komunikabidearen zuzendariari edo horien ordezkariei; hitzezko epaiketa egingo da eskaria egin eta hurrengo zazpi egunetan.

Deialdia telegrama bidez egingo da. Hori gorabehera, beste edozein bide erabilta, presazigor dakioko demandaren kopia alderdi demandatuari.

Lehen auzaldiko epaileak eskumenik ez duela adierazten duenean, kaltetunak organo eskudunera jo ahal izango du, kasuan kasuko ebazpena eman eta hurrengo zazpi egun baliodunetan. Ebazpen horretan adierazi beharko da zein organok duen gaiaren gaineko eskumena.

6. artikula

Epaiketaren izapideak egingo dira hitzezko epaiketetarako Procedura Zibilari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, baina hurrengo aldazarazpenekin:

a) Epaileak ofizioz erreklamatu ahal izango dio demandatuari epaitutako informazioa, horren grabazioa edo idatzizko erreprrodukzioa igorri edo aurkeztea.

b) Egokiak izan eta berehala gauza daitezkeen frogak bakarrik onartuko dira.

c) Epaia emango da epaiketa-egunean bertan edo hurrengo egunean.

Epaitzak zuzenketa ukatuko du, edo, osterantzean, zuzenketa lege honen 3. artikulan ezarri moduan eta epeetan argitaratzea edo hedatzea aginduko du; besterik ez. Lege honen 3. artikuluko epe horiek zenbatuko dira epaia jakinarazten denetik; epai

pedimentos hubiesen sido totalmente rechazados.

La sentencia estimatoria de la petición de rectificación deberá cumplirse en sus propios términos.

El objeto de este proceso es compatible con el ejercicio de las acciones penales o civiles de otra naturaleza que pudieran asistir al perjudicado por los hechos difundidos.

Artículo 7

No será necesaria la reclamación gubernativa previa cuando la información que se desea rectificar se haya publicado o difundido en un medio de comunicación de titularidad pública.

Artículo 8

No serán susceptibles de recurso alguno las resoluciones que dicte el Juez en este proceso, salvo el auto al que se refiere el párrafo segundo del artículo 5, que será apelable en ambos efectos, y la sentencia, que lo será en un solo efecto, dentro de los tres y cinco días siguientes, respectivamente, al de su notificación, conforme a lo dispuesto en las secciones primera y tercera del Título sexto del libro II de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

La apelación contra el auto a que se refiere el artículo 5 se sustanciará sin audiencia del demandado.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados los artículos 58 a 62 de la Ley 14/1966, de 18 de marzo; el artículo 25 de la Ley 4/1980, de 10 de enero, sobre el Estatuto de la Radio y la Televisión; los Decretos 745/1966, de 31 de marzo, y 746/1966, de la misma fecha, y el numero 1 del artículo 566 del Código Penal, así como cuantas disposiciones se opongan a lo establecido en esta Ley.

horretan, zein alderdiren eskaerak oso-osoan ezetsi eta horri ezarriko dio epaileak kostuen ordainketa.

Zuzenketa-eskariaren aldeko epaia bete beharko da epaian bertan ezarritakoaren arabera.

Prozesu honen xeda bateragarria da kaledunak, hedatutako egitateak direla eta, beste izaera batekin izan ditzakeen akzio penal eta zibilekin.

7. artikulua

Ez da behar izango aurretiazko gobernuerreklamaziorik, zuzendu nahi den informazioa titulartasun publikoko komunikabideren batean argitaratu edo hedatu denean.

8. artikulua

Prozesu horretan epaileak emandako ebazenen aurkako errekurtsorik ez da onartuko. Salbuespenez, gora jotzeko errekursoa jarri ahal izango zaie 5. artikuluko 2. Ierrokadak aipatu autoari, bi ondoreei dagokienez, eta epaiari, ondore bakar bati dagokionez. Hiru eta bost egun izango dira, hurrenez hurren, autoaren eta epaiaren aurka gora jotzeko errekursoa jartzeko, horiek jakinarazi direnetik. Autoaren eta epaiaren aurka gora jotzeko errekursoa jarriko da, Prozedura Zibilari buruzko Legeren II. liburuko seigarren tituluko lehenengo eta hirugarren ataletan xedatutakoarekin bat etorriz.

Lege honen 5. artikuluko autoaren aurkako gora jotzeko errekursoa gauzatuko da, demandatuak esan beharrekoa entzun gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe geratuko dira martxoaren 18ko 14/1966 Legearen 58. artikulutik 62.erakoak; Irrati eta Telebistaren Estatutuari buruzko urtarilaren 10eko 4/1980 Legearen 25. artikulua; martxoaren 31ko 745/1966 Errege Dekretua eta data bereko 746/1966 Errege Dekretua, eta Zigor Kodearen 566. artikuluko 1. paragrafoa, bai eta lege honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak ere.